



## HIRI MUSIKA

XX. mendearen hasieran, aldaketa garrantzitsua gertatu zen musikaren produkzioan, kontsumoan eta harreran hainbat genero berri sartu zirenean, horien praktika hainbat zabalkunde molde berriekin loturik zetorrela. Molde horiek bestelakotu egin zuten XIX. mendeak berezkoa izan zuen musikaren egitura ekonomikoa.

Izan ere, hiru faktorek bideratu zuten musika industria ahaltsu bat agertzea: hainbat grabazio sistema agertzea, erreproduzitzeko tresnak -funtsean, gramofonoa-komertzializatzea eta hainbat komunikabideren bidez -irratiz, bereziki- zabalkunde sistema bat sortzea. Industria hori zenbait hirigunetan kokaturik egotea ezinbesteko baldintza izan zen "hiri musika" izenekoak ezagunak izan eta jendartean era masiboan zabal zitezen.

XX. mendeko musikaren historiak ezin du saihestu hainbat musika generoren arrakasta aparta, hala nola *swing* musika, hogeita hamarreko hamarkadan, *rock and roll* eta *pop* musika, berrogeita hamarreko eta hirurogeiko urteetan, edo azken berrogei urteetan elkarrekin bizi izan diren beste hainbat genero (*rock sinfonikoa*, *heavy metal*, *reggae*, *soul*, *funk*, *rap*...), nortasun elementuak izan direnak hainbat belaunaldirentzat, horiek guztiek tamaina ikaragarriko jarduera ekonomiko bat sortzen izan duten ekarpena ahaztu gabe.

Nolanahi ere, zabalkunde eta onarpen horiekin batera ez dira beti azaldu estilo horiek ezartzeak dakartzan arazo askotarikoei buruzko gogoetak edo azterketak; izan ere, hiri musikei buruzko azterlanak azken hogeita hamar urteotan baizik ez dira agertu eta, funtsean, angloamerikar girora mugatu dira.

Hiri musikaren arazoei hainbat ikuspegitatik ekingo dieten artikulak biltzea da deialdi honen xedea. Ikuspegi aniztasuna berezkoa dute genero horiei buruzko azterlanek, betidanik musikologikoaz oso bestelakoak diren ikuspegietatik heldu baitiote alor honi: soziologikoak, antropologikoak, filosofikoak, politikoak... Era berean, trataturiko musikaren izaera anitza kontuan harturik, genero desberdin horietarako eta garatu diren errealitate geografiko eta kultural ezberdinetarako hainbat hurbilketa konbinatu nahi dira.

Interesatuak laburpenak -250 hitz gehienez- bidali behar dituzte [argit4@euskolikaskuntza.org](mailto:argit4@euskolikaskuntza.org) helbide elektronikora, **2012ko ekainaren 15a** baino lehen, eta beren helbide arrunta, telefonoa, helbide elektronikoa eta datu pertsonalak agerraraziko dituzte.